


VILLA SILVA
D MAILA

ZUBIAURRE PASEALEKUA 11



Pablo Zabaló, 1927

Deskribapena

Neurri handiko villa, konposizio eta material aldetik bitarteko ugarikoa. Bi maila nagusi dauzka, teilatupea hartzen duen hirugarrena, eta alboetako dorre biak. Barne antolamendua ataria, atalondoa eta hondoan eskailera lotzen dituen Erdiko ardatz batetik abiatzen da. Albo espazioetan gela nagusiak daude, saloiak eta jangela alegia, eta hondoan kapera bat dago, absidea atzealdeko fatxadarantz ateratzen duela. Azpimarratzekoa lau piezar nagusien arteko erlazioa eta jangelari erantsitako bi begiratoki kurboak. Kanpoaldetik deigarriena, berriz, Erdiko horma pikoaren alde banatan dauden dorreak dira; horrela hiruko banaketa bat egiten dute, simetria indartsu batez, beheko solairuko arku handia eta gainean armari bat daukan horren goiko balkoia Erdian hartuta geratzen direla. Dorreek dorretxeetako garitoi-ertzak gogorarazten dituzte, eta bao klasizistak ere badauzkate, zutabe gaineko frontoi zatituz eta arku zenbaitez, goiko erremate gisa. Adreiluzko hondoak koroatze eginkizun bera betetzen du azken solairuan.

D mailaren babes araubidea

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko, zurezko eta adreiluzko elementuak. apaindura eta moldura emokatuak. Balkoietako burdin lanak. Estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa bereziak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.